

BIZKAIKO FORU GIZARTE LAGUNTZAKO ERAKUNDEAREN ENERGIA EKINTZA PLAN ESPEZIFIKOA

Posted on 10/06/2025 by Naider

Bizkaiko Foru Gizarte Laguntzako Erakundeak (IFAS) bere **Energia Ekintza Plan Espezifikoa** abiarazi du, helburu nagusitzat hartuta **Euskadiko 4/2019 Energia Jasangarritasun Legea** betetzea eta eraginkorragoa eta karbono gutxiagokoa den eredu energetiko baterantz aurrera egitea.

Prozesu honek jarraipena ematen dio 2023an egindako **Foru Sektorearen Energia Diagnostikoari**, non IFAS Bizkaiko Foru Aldundiaren beste erakunde batzuekin batera barne hartu zen. Lan horretatik abiatuta, plan berriak jarduera-lerro zehatzak, aurrezpen-helburuak eta 2030erako eta 2050erako murrizketa-konpromisoak betetzeko neurriak zehaztuko ditu.

Naiderrrek laguntza tekniko espezializatua ematen du fase honetan, plana ez dadin soilik araudiaren eskakizunei erantzuteko tresna izan, baizik eta erakundearen jasangarritasun energetikoan aurrera egiteko bide-orri errealista eta operatibo bihurtu dadin.

Ekimen honi esker, IFAS erreferente bihurtzen da gizarte-zerbitzuen arloan eraginkortasun eta jasangarritasun irizpideak aplikatzean, lurraldeko energia-helburuetan lagunduz eta Bizkaiaren trantsizio ekologikoa sendotuz.

